



<b>Loturiko arriskuak</b>	<b>Beharrezkoak diren norbera babesteko ekipamenduak</b>
Erorketak edo material askatzeak Kolpeak. Ebakiak. Harrapatuta gelditzea Partikulak eta likidoak proiektatzea. Ekipamenduek elementuak proiektatzea, hausturagatik Hautsa, aerosolak arnastea Zarata dagoen tokian egotea. Dardarak dauden tokian egotea. Gehiegizko ahaleginak	Segurtasun-oinetakoak Segurtasun-betaurrekoak Eskularruak Entzumenerako babesa

## **PRAKTIKA SEGURUAK**

### **MAKINA-ERREMINTA ERABILTZEA**

#### **PREBENTZIORAKO ARAU OROKORRAK**

1. Ez badakizu erremintak edo makinak nola erabili ez itzazula erabili edo ez ezazu haiekin lan egin. Zalantzarik baduzu, kontsulta ezazu jarraibide liburua eta errespetatu itzazu ahalik eta gehien segurtasun neurriak, bereziki babesei eta lantaldearen abiadurei buruzkoak. Erabil ezazu makineria eta alda itzazu erremintak makinaren jarraibide liburuan zehazten den bezala, dela lanei, dela laneko erabiltzen diren materialei buruz.
2. Ez ezazu inoiz lanik egin makinetan harrapatuta edo makinaren elementuekin katigatuta gelditzeko arriskua duten eskumuturrekoekin, zintzilarioekin, eraztunekin edo bestelako elementuekin. Buzoen eta alkandoren eskumuturrak estututa egonen dira (1. irudia).



**1. irudia**




3. Errespetatu itzazu lan ekipamendu bakoitzaren seinaleztapenak.



Entzumena babestea  
nahitaezkoa

4. ERABAT DEBEKATURIK dago makinek dakartzaten segurtasun neurriak (segurtasun-gailuak eta gordelekuak) ezabatzea. Sistema hauek deuseztatzen badira ez da Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Legea zuzenean betetzen eta horrek zigorra izan dezake. Maiz egiazta ezazu neurri horiek zuzen daudela. Makina erabiltzen hasi baino lehenago, ziurta ezazu babes guztiak zuzen jarrita eta egokituta daudela.



5. Ez ezazu sekula gorputz-adarririk sartu makinaren gune higikorretan, makinak martxan direnean. Puntu horietan sartzea beharrezkoa bada, deskonekta ezazu



makina edozein energia iturritatik eta seinala ezazu hori lankideek nahigabe makina hori jar ez dezaten.

6. Erabil itzazu lan ekipamendu bakoitzerako gomendaturiko norberaren babeserako ekipamenduak (fabrikatzailearen eta seinaleztapenaren arabera). Kontserba itzazu egoera onean Norberaren Babeserako Ekipamenduak (NBE). Beharrezkoa izanen da begiak eta aurpegia babestea partikulak aurpegirantz proiektatzeko arriskua dagoenean.



7. Makinak erabiltzen direnean, ez ezazu babes eskularrurik erabili makinak katigatuta edo harrapatuta ez gelditzeko (zati mugikorrek dituzten lan ekipamenduak).
8. Partikulen aurkako maskarak hautsez betetako tokietan erabili behar dira, hau da, langarreztagailuekin akaberrak lantzen direnean edo zerbait lixatzen edo zerratzen denean.
9. Eduki ezazu lanlekua material erregarri eta/edo sukoietatik garbi; soldadurako edo ekipamenduetatik askatutako oihalek, produktu kimiko sukoiek edo abarrek sortutako txinpartengatik su har dezakete material horiek.
10. Ahalegindu zaituzte lanlekua aire konprimituarekin ez garbitzen. Hala egin behar baduzu, babes itzazu begiak. Erabat debekaturik dago aire konprimitua norbera garbitzeko erabiltzea.



11. Makinaren funtzionamenduan edozein irregulartasun sumatuz gero (hots ezohikoak, berotzeak, etab.), gelditu makina eta esaiotz berehala zuzeneko agintariari.
12. Konpon ezazu berehala lan ekipamenduetako edozein olio isuri eta behar bezala garbi ezazu.
13. Languneko zorua garbi eta oztoporik gabe eduki behar da. Erremintak eta enbalajeak ez dira lurrean utziko.
14. Erabiltzeari utzitakoan, deskonekta eta garbi itzazu makinak. Utz itzazu hondakinak bere tokian eta ez lurrean.
15. Egoera txarrean dagoen makina-erreminta oro erretiratu behar da eta behar bezala seinaleztatu ("Ez erabili" edo "Egoera txarrean dagoen ekipamendua").

### ***Ebaketarako makina-erreminta***

1. Jarrai itzazu fabrikatzailearen jarraibideak, hantxe agertuko baita zein den ebaketa metodorik egokiena eta zein diren materialaren eta lan baldintzen arabera erabili beharreko diskoak eta tresnak.
2. Ziurta ezazu ebaki beharreko pieza zuzen eta sendo atxikita dagoela eta hura mugitzerakoan ez duela oztoporik izanen.
3. Materialak ebaki behar badituzu, ziurta ezazu materialak ez duela metalezko objekturik edo materiala ez dela ebaketa diskoa baino gogorragoa izanen, materialaren edo material hori haustean diskoaren beraren proiektzioak saihesteko eta material horretako zenbait elementu ebaketa tresnan katigatzerakoan harrapatuta ez gelditzeko.
4. Egin itzazu ebaketak gorputzaren kontrako norabidean eta ebaketa babesturik



edo estalirik dagoela babes mugikorren bitartez.

5. Berrikus itzazu aldian-aldian ebaketa diskoak eta tresnak eta erretira itzazu hondatuta eta/edo materialaren eta ebaketa moduaren arabera egoera txarrean daudenak. Ebaketa tresnak zorrotzurik izanen dira.
6. Ebakitzen, bizarra kentzen, zulatzen... ari diren piezak behar bezala lotuta egonen dira, pieza horien nahi gabeko mugimenduagatik zizailadurarik gerta ez dadin.
7. Jar zaituz langilearen beraren aldera partikularik bideratuko ez duten balizko aire korronteen babesean, makinak erabiltzen badituzu edo eskulanak egiten ari bazara.
8. Erabil itzazu "Babes-betaurrekoak" proiektzioak gerta daitezkeen eragiketa guztietan, hala nola, zulagailuak, zerrak, erradiala, etab. moduko makina erremintak erabiltzen direnean eta eskulanak egiten direnean material zatiak (deskoriak, materiala jatea erradialarekin, etab.) askatutakoan.

### ***Lan ekipamenduak mantentzeko lanak***

1. Mantentze-lanetarako, doikuntzarako makineria gordetzeko prozedura ezartzea, makinen zati higikorren barnean sartu behar denean.
2. Erabilitako makinen aldian aldiko mantentze-lanak egitea, jarraibide liburuko edo horretarako idatzitako jarraibideen arabera.
3. Makinak aldatzeko, mantentzeko, doitzeko, desblokeatzeko, berrikusteko, konpontzeko eta garbitzeko eragiketak beti eginen dira makina geldirik eta deskonektaturik dagoela eta, orobat, hondar-energia arriskutsurik ez dagoela frogatu ondoren. Makina martxan dagoela erabat nahitaezkoa bada eragiketaren bat egitea, abiadura txikian egin beharko da eta beti prebentziorako baliabideren bat eskura izanik.



### ***Esku-erreminta***

1. Lan bakoitzean erabil ezazu tresnarik egokiena eta zertarako dagoen diseinatuta hartan erabil ezazu. Ez itzazu erabili, esate baterako, giltzak mailuen ordezt, bihurkinak hotzeko zizelen ordezt, labanak bihurkinen ordezt, etab.
2. Erabili aurretik, erabiltzaile bakoitzak egiaztatuko du erreminten egoera ona dela eta ikuskatuko ditu kirtenak, ahoak, doiketa-guneak, zati mugikorrek eta ebakitzen duten eta proiektaturik atera daitezkeen zatiak arretaz ikuskatuko ditu eta, orobat, berari esleitutako erreminten eta noizean behin erabilitakoen kontserbazioaren ardura hartuko du. Erreminta horietan akatsak ikusten baditu, bere berehalako nagusiari esan beharko dio eta hark ordezkaturko ditu akatsen bat antzematen badu.
3. Ez baduzu argi erreminta jakin bat zuzen nola erabili, kontsulta itzazu jarrabide liburuak.
4. Eduki itzazu beti garbi eta koiperik gabe.
5. Esku-erremintaren bat erabili behar baduzu (erradiala, arrabotatzeko makina, lixatzeko makina, mailu kolpekaria, etab.), har ezazu beti bi eskuekin.
6. Akatsen bat ikusten baduzu, ohartarazi. Konpondu edo ordezkaturko da edozein akats ikusiz gero.
7. Ez ezazu sekula poltsikoetan erremintarik eraman. Erabil itzazu erreminta-etxeak.
8. Erremintak erabiltzeari uzten diozunean, utz itzazu paneletan edo gordetzeko tokietan.
9. Ez itzazu erabili kirten askeak, oker doituak edo ezpaldutakoak dituzten erremintak. Kontu handia izan mailuekin eta mazoekin.



10. Babes modura, erabil itzazu segurtasun-betaurrekoak mailuekin ari bazara lanean edo proiektio arriskua duten erremintekin. Inguruan beste norbait badago, haiek ere erabili beharko dituzte.

### ***Garrantzitsua***

Bi metrotik gorako altueratik erortzeko arriskua dagoen edozein lanetan, puntu finko seguru bati lotutako segurtasun arnesa erabili beharko da edo segurtasun-soka homologatua eta egoki mantendua eta gainbegiratua.

Ez badago erorketa saihesteko ordezkoko baliabiderik (saski jasotzaileak, plataformak, aldamiok, etab.) edo erorketa kontrolatuko duten eusteko tresnarik (Norberaren Babeserako Ekipamenduak), ez da lanik eginen 2 metrotik gora badaude eta handik erortzeko arriskua badago.

### **Langileari emana**

Izen-deiturak:

Sinadura:

Data: